



2017-03-05eko HERRI BATZARREKO AKTA

Martxoaren 5ean, igandea, eguerdiko 12:00etan, Itsasoko Udal Aretoan aurtengo 2. Herri Batzarra burutu da, honako aztergaiak izan dituelarik:

1. Martxoaren 3an, ostirala, Madrilgo Entitateen Erregistrotik Itsaso udalerrri gisa inskribatzeko iritsitako ukapenaren aurrean zein egoeretan gauden azaltzea.

Erregistro honetan inskribatzea ukapenaren arrazoiak azaldu dira (5.000 biztanle ez ditugula). Horren ondorioz, martxoaren 7an Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu eta Zerbitzu juridikoekin elkartu ondoren, zera adierazi zen:

- a. Gipuzkoako Foru Aldundiak **Itsasok duen Udalerrri izaerarekin aurrera jarraitzeko** adierazi zigula, ari garen bide honetan. Madrilgo Erakunde horrek ez du inongo “botere konstitutiborik”. Ahalmen hori jada Gipuzkoako Foru Aldundiak eman digu eta atzera ezina da. Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak erabateko eskumena du bere lurraldeko udalerriei buruzko araubidea zehaztu eta kudeatzeko.
- b. Beraz, Foru Aldundiarekin batera egin beharreko prozesua jarraituko da eta **zerbitzu juridikoak martxan jarri dira**, Euskal Foru Aldundiek dituzten eskumenak ere ezbaian jarri baititu errekurtsio honek.

Herriari zuzenean eragiten dioten ondorio praktikoak:

- i. Itsasoko errolda ez izatea
- ii. Bake epaitegia indarrean jartzeko erregistro falta
- iii. Hauteskundeak egongo balira, zentsu elektoralean Ezkio-Itsaso bezala egongo ginateke
- iv. Estatuta bidali behar izaten den kontabilitatea Ezkio-Itsaso moduan bidali beharko da.

2. Udala martxan jartzeko lehen pausoak noraino eman diren eta zein norabidetan adieraztea. Honako pausuen berri eman da:

- a. Kontu-korrontea badugu
- b. Izenpe txartela ere eskuratu da
- c. Udalean, diru-sarrerak eta irteerak era desberdinak egiten dira jadanik
- d. ETSko obrak (Atsusaingirik Alegira doan bidean sortutako kalteen inguruko tramiteak): Eusko Jaurlaritzara bideratu da eskaera, bi udalerrien izenean (Ezkio eta Itsaso)
- e. Leader Programa: Itsasorentzat kalifikazio aldaketa eskatzea (G2tik G1 izateko eskaera)
- f. Fondo Foralaren asignazioaren berri eman da: 186.164,8 € urteko
- g. itsaso.eus domeinua erosi da eta udaleko posta elektronikoak eskatuta daude

3. Foru Aldundian aurkeztutako proiektu estrategikoak ezagutaraztea.

Markel Olanorekin izandako bileraren berri eman da eta Itsason dauden premia eta lehentasunekin osatutako txostena eman zitzaiola adierazi da. Hemendik aurrera Iñaki Labaka (Lurralde Oregako Zuzendaria) izango da gure zuzeneko harremana. Udaletxea ekipatzeko materiala bidaliko digute, eta enpresaren batekin plan estrategiko bat egitea proposatu digute Aldunditik.

4. Itsasori zuzenean eragiten dioten hainbat erakunde eta Mankomunitateren eskaintza eta lankidetzaz azaltzea.

- a. REDESA
Goi-tentsioko linearen trazatuan Itsason hartzen duen lur eremu bakarra zentralaren barrukoa da. Beraz, Itsason ez legoke desjabetzerik.
2020n linea funtzionamenduan egotea espero dute.
Konpentsazio moduan, proiektu soziokulturalak babes ditzaten eskatu zaie.
- b. ERTZANTZA
Herritarren esanetara daude. Gomendioa, 112 SOS erabiltzea edozein susmoren aurrean.
Herritarrentzat prebentzio formazioa emateko prest daude. Hitzaldi bat ematera etorriko lirateke.
Etxe guztien kokalekua GPS bidez jasota izateak beraien lana erraztuko luke.
- c. SASIETA MANKUMUNITATEA
Urtebete beharko da Itsasoko zaborren kudeaketa bereizteko.
Zaborra sailkatzearen abantaila ekonomikoak dakartza: sailkatutako zabor mota bakoitzaren kopuruengatik ezarritako prezioen arabera kalkulua egiten da fakturan.
Alegian konposta komunitarioa edo edukiontzi marroiaren planteamenduak aztertu.

5. GOIEKI Garapen Agentzian parte-hartzeko hainbat arazoak partekatzea.

- a. Historikoak (Areria) eta geografikoak
- b. Soziologikoak, joera nagusia eta Gabiria eta Ormaiztegiarekin lotura naturala
- c. Ekonomikoak (Industria eta berrikuntza)
- d. GOITUR Turismo dinamizatzailea
- e. Gizarte ekintza bateratua
- f. Agenda 21
- g. Kulturalak, Goierri Telebista (2€ biztanleko eta urteko)

GOIERRI FUNDAZIOA (Hezkuntza eta eskualdearen arteko lotura):

- a. Goierri Eskola eta Unibertsitatea
- b. Ikaslan enpresa
- c. Aportazioa 2.000€ inguru urtean

GOIEKIn parte hartzeko behar diren tramiteak nola burutu aztertzen eta baloratzen ari gara (Aportazioa: 1.000€ inguru urtean).

6. Itsasoko Udalaren antolaketa eta batzorde lan-taldearen plangintzaren berri emateaz gain, parte-hartzeko gonbitea luzatzea.

BATZORDE LAN TALDEAK	Azpiegiturak + ingurumena Koord.: Gorka + Maixabel	Komunikazioa Koord.: Anttoni + Xabier	Ekimen soziokulturalak Koord.: Josemari
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> - Herriko seinalitikak aldatzeko txostena egitea (bidalita) - Ostaturako eta Udaleko argindar fakturak era berezituak jasotzeko urratsak ematea. - Udal eraikina hornitzea - Alegiako proiektua aurrera eramatea 	<ul style="list-style-type: none"> - Biztanleek udal informazioa nola jaso nahi duten jakiteko, txantilo bat prestatzea, zertarako garbi azalduz: guztietara iristen dela bermatzeko, datu basea izateko, efikazia eta interakzioa bermatzeko,... - Iragarki taulak non jarri aztertzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Auzolanen planifikazioaren hausnarketa: maiztasuna, aurrekontuak, aseguruak,... - Udaberriko auzolanaren antolaketa: Kizkitzan bukatu gabe geratu zirenak amaitzea. - Hurrengoetarako: Alegian, eliza ataria garbitu/pintatu,

	<ul style="list-style-type: none"> - Bide gorriaren trazatuaren bideragarritasunaren jarraipena egitea - Zaborraren bilketa hobetzeko ekintzak proposatzea - Herri bide, mendi bide eta baserri bideen erabilera eta mantenua arautu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Kanpo eta barne komunikazioaren ardura hartzea: komunikabideak, web orriaren gauzatzean behar den kontrastea egitea eta gerora eguneratua izatea - Artxibo historikoaren indizea erabiliz, Itsasokoa ekartzea eta kokatzea 	<ul style="list-style-type: none"> plazako baranda,hesiak kendu, lorategia berritu... - Kultura agenda, urteko aurreikuspena egin: tailerrak, festak, auzolanak, ume-gazteentzat aisialdia (uda eta oporretan), ondarea, ikastaroak, azoka, Gabonak, Santa Ageda, Matximenta,...
EGUTEGIA	<p>Eguna: martxoaren 18a, larunbata Ordua: 18:30 Maiztasuna: Hamabostero</p>	<p>Eguna: martxoaren 7a, asteartea Ordua: 19:30 Maiztasuna: Hamabostero</p>	<p>Eguna: martxoaren 17a, ostirala Ordua: 19:00 Maiztasuna: Hamabostero</p>

7. Herritarron eta udalaren arteko komunikazio aukerak aztertzea eta proposamen bat eskaintzea.

Etxe guztietako telefono zenbakiekin zerrenda bat egitea adosten da eta udaleko jakinarazpenen, deialdien, batzarren... eta abarren berri nola jasotzea gustatuko litzatekeen galdetzea adosten da.

Honez gain, herriko bost guneeetan iragarki taulak jarriko dira: Itsason, Aletin, Mandubin, Uribarko bidean eta Zabalegiko bidegurutzean.

Honenbestez, eguerdiko 13:45etan amaitutzat jo da Batzarra. Eskerrak guztioi zuen parte-hartzeagatik.

Itsason, 2017ko martxoaren 5ean

Gorka Sasieta Barrenetxea

